LAN-MERKATUAREN BALANTZEA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Lehen Hiruhilekoa 2023

lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LAN ETA ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

EDUKIA

- TESTUINGURU EKONOMIKOA 4
- LANBIDEN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA 5
- AFILIAZIOA GIZARTE SEGURANTZAN 6
- KONTRATATUTAKO PERTSONAK ETA KONTRATUAK 7
- OKUPAZIOA ETA LANGABEZIA, BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTAREN ARABERA (BJA) 8

*Txosten honek, **2023ko lehen hiruhilekoan**, Euskal Autonomia Erkidegoan lan-merkatuak izandako joera aztertzen du, aldagai nagusien analisiaren bitartez.*

Horretarako, lan-merkatuari zuzenki lotutako aldagaiez gain (erregistratutako langabezia, afiliazioa Gizarte Segurantzan eta kontratuen erregistroa), lan merkatuaren arloan biztanleria neurtzera bideratuta dauden estatistika operazio nagusiak hartu dira kontuan (Euskal estatistika Erakundearen "Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta", BJA).

Testuinguru ekonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinaren (BPG) igoera %2,2koa izan da lehen hiruhilekoan, 2023 urte osorako aurreikusten den hazkundea %2,1ekoa izanik.

Eustaten kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, EAEko ekonomia %2,2 hazi zen lehen hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Datu horren arabera, Euskal AEko ekonomiaren sektore nagusietako jardueraren urte arteko dezelerazio txikia dago, nahiz eta bilakaera positiboa izan.

Euskal AEko Barne Produktu Gordina (BPG) % 0,4 igo zen 2023ko lehen hiruhilekoan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

Urteko batez bestekoan, EAEko ekonomia %4,3 hazi zen 2022an, eta tasa hori bat dator Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenarekin. Eustatek aurreratutako datuen arabera, ekonomiaren sektore guztiak hazi ziren, baina 2021ean baino erritmo motelagoan, urte horretan BPGa %5,9 igo baitzen.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenei dagokienez, EAEko BPGa %2,1ekoa izango da 2023 urte osoari dagokionez.



Iturriak: Eustat, Ekonomia eta Ogasun saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza , "Koiuntura DI-DA batean 2023ko martxoa" txostena.

Espainiako ekonomiari dagokionez, 2. grafikoan ikus daitekeen bezala, BPG-aren urtez urteko aldakuntza tasa 2022 urtean, Estatistika Institutu Nazionalaren (EIN) arabera, %5,5ekoa izan da. 2023 urterako urtez urteko BPG-aren aurreikuspena, Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) arabera, %1,4koa da. Euroguneko ekonomiari dagokionez, BPG-aren urtez urteko aldakuntza tasa 2022 urtean, Eurostat-en arabera, %3,5ekoa izan da. 2023 urterako urtez urteko BPG-aren aurreikuspena, Consensus Forecast-en arabera, %0,9koa da. Hazkunde-aurreikuspenek ahulak izaten jarraitzen duten arren, estimazio hori gorantz berrikusita, atzeraldian sartzeko aukera urrundu egin da



Iturriak: EIN, Eurostat, NDF, Consensus Forecast, "Koiuntura DI-DA batean 2023ko martxoa" txostena.

Bestalde, Nazioarteko Diru Funtsak munduko ekonomiaren hazkundea % 2,8koa izan zen 2023an apirileko txostenean; hau da, 2022ko datuarekin alderatuta (% 3,4) hazkunde murrizketa. Erakunde horren arabera, dezelerazio horren arrazoiak honako hauei egotz dakizkieke: inflazioa murrizteko beharrezkoa den diru-politikaren orientazio murriztaileari, finantza-baldintzen okertzearen ondorioei, Ukrainan gertatzen ari den gerrari eta gero eta handiagoa den zatikatze geoekonomikoari.

Lanbiden erregistratutako langabezia

Lanbiden erregistratutako langabe kopuruaren hiruhileko arteko bilakaera %1,4 jaitsi da: -1.648 gizon eta +42 emakume

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbideko bulegoetan erregistratutako **langabe kopurua** %1,4 jaitsi da 2023ko lehen hiruhilekoan (-1.606 langabe); guztira erregistratutako langabe kopurua 109.192 pertsonakoa izan da, urte arteko jaitsiera % 6,7ekoa izanik.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Sexuari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Lanbiden erregistratutako langabe kopurua 1.648 pertsonatan jaitsi da gizonezkoen artean eta 42 pertsonatan igo da emakumezkoen artean. Gizonezkoen kasuan, erregistratutako langabe kopurua 46.197 pertsonatan kokatu da eta 62.995 pertsonatan emakumezkoen kasuan.

Adinari dagokionez, langabetu kopuruaren jaitsierarik handiena, balore absolutuetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, 35-44 urte bitarteko segmentuan gertatu da (-1.059); ondoren, 45-54 urte bitartean (-865) eta 25-34 urte bitartean (-653) ; 16-24 urte bitartean eta 55-64 urte bitartean, ostera, langabetu kopurua 733 eta 238 pertsonatan igo da hurrunez hurren.

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Araban %1,9eko igoera izan da langabetu kopuruan. Gipuzkoan eta Bizkaian, ostera, %3,4 eta %1,5ko jaitsierak izan dira, hurrenez hurren.



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Jatorriari dagokionez, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu atzerritarren kopurua %0,7 igo da eta bertako langabetu kopurua %1,9 jaitsi da. Lehenengo kasuan langabetu kopurua 18.822 pertsonatan kokatu da eta bigarren kasuan 90.358 pertsonatan.

Ikasketa-mailaren arabera, balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, langabetu kopuruan jaitsiera handiena izan duen taldea Batxilergo ikasketak dituztenena izan da (-%12,2), jarraian Oinarrizko ikasketak dituztenak (-%7,8) eta Unibertsitate ikasketak dituztenak (-%7,7). Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langabetu kopurua %28,3 igo da.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, hiruhileko honetan, balore absolutuetan, aurreko hiruhilekoaren alderatuta, langabetu kopuruan jaitsiera handiena izan duten sektoreak hurrengoak izan dira: *Enpleguarekin lotutako jarduerak* (-1.424), *Hezkuntza* (-743) eta *Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria izan ezik* (-229). Langabetu kopurua igo den jardueren artean, *Enpleguarekin lotutako jardue*ren taldea nabarmentzen da (+548), ondoren, *Txikizkako merkataritza* (+264) eta *Familiaetxeak, ondasun eta zerbitzuen ekoizle bezala, erabilera propiorako* (+201).

Afiliazioa Gizarte Segurantzan

Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 994.655 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %0,1 gehiago

EAEn 2023ko lehen hiruhilekoan, Gizarte Segurantzako afiliatu kopurua 994.655 pertsonakoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino %0,1 gehiago eta aurreko urteko hiruhileko berdinean baino %1,4 gehiago.



5. Grafikoa. **Afiliazioa Gizarte Segurantzan, EAEn (pertsona kopurua)**

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuari dagokionez, afiliatu kopurua egonkor mantendu da aztertutako azken bost hiruhilekoetan. Hurrengo taulan azaltzen den bezala, afiliatu kopuruaren %52a gizonezkoak dira eta %48a emakumezkoak (aurreko hiruhilekoan baino puntu bat gehiago).



6. Grafikoa. **Afiliazioa Gizarte Segurantzan, EAEn, sexuaren arabera (%)**

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Lurralde Historikoei dagokienez, afiliazio kopuru handiena Bizkaian izan da (%50,3); jarraian Gipuzkoan (%33,3) eta Araban (%16,4). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Gipuzkoan1.058 pertsonatan igo da afiliazioa; Bizkaian eta Araban, aldiz, jaitsi egin da (-467 eta -12, hurrenez hurren).

Jarduera Ekonomikoen atalei dagokienez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, laugarren hiruhilekoan afiliatu gehien izan dituzten jarduera atalak hurrengoak izan dira: *Manufaktura industria* (%17,4), *Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa* (%13,5); eta *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (%11,1). 2023ko lehen hiruhileko datuak aurreko hiruhileko datuekin alderatuta, afiliatu kopuruan igoera izan duten jarduera atalen artean hurrengoak nabarmentzen dira: *Hezkuntza* (+2.071), *Herri administrazioa eta defentsa, derrigorrezko gizarte segurantza* (+873) eta *Manufaktura industria* (+809). Jaitsiera handiena jasan duten jardueren artean, ondorengoak nabarmentzen dira: *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (-3.098) eta *Handizkako eta txikizkako merkataritza, motozikleta eta ibilgailu motordunen konponketa* (-2.129).

Jatorriari dagokionez, hiruhilekoaren azken hileko batez besteko datuen arabera, Gizarte Segurantzara batu diren atzerritarren kopurua %2,2 hazi da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kopurua guztira 85.016 pertsonatan kokaturik. Afiliatu guztien artean, talde honen pisua %8,5koa da, afiliatu autoktonoena %91,5koa izanik. Atzerritarren artean, gizonezkoen afiliazioa %2,9 igo da eta emakumezkoen afiliazioa %1,2. Lurralde Historikoei dagokienez, atzerritarren afiliazioa guztietan igo da: %2,6 Gipuzkoan, %2,4 Bizkaian eta %0,5 Araban.

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak

Lehen hiruhilekoan kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua %2,9 jaitsi da eta sinatutako kontratu kopurua guztira 167.307koa izan da

2023ko lehen hiruhilekoan EAEn kontraturen bat sinatu duen **pertsona kopurua** guztira 97.888koa izan da, aurreko hiruhilekoan baino %10,7 gutxiago. Sexuari dagokionez, emakumezkoen artean %12,2eko jaitsiera izan da eta gizonezkoen artean %9,2koa.

7. Grafikoa. **EAEn kontraturen bat sinatu duen pertsona kopurua; eboluzioa hiruhileka**



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Ikasketa-mailaren arabera, kontratatutako pertsonen %41,7k Derrigorrezko ikasketak ditu, %20,5ek Unibertsitate ikasketak, %20,5k Batxilergo ikasketak eta %16,5k Lanbide Heziketako ikasketak.

Adinari dagokionez, 2023ko lehen hiruhilekoan kontratatutako pertsona kopuruaren artean, 25-34 urte bitarteko pertsona taldea nabarmendu da, %28,4ko pisuarekin; 35-44 urte bitarteko taldeak jarraitzen dio (%22,9). Balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, kontratatuko pertsona kopuruan jaitsierarik handiena izan duen taldea 24 urtetik beherakoena izan da (-%20,4), jarraian 54 urtetik gorako taldeak (-%13,9).

Jatorriari dagokionez, kontratatutako pertsonen %80,0a bertakoak dira eta %20,0k atzerriko nazionalitatea dute (aurreko hiruhilekoan baino 0,9 puntu gehiago). Atzerritarren artean, jatorri hauek nabarmentzen dira: latinoamerikarra (%52,0), Europar erkidegokoak eta ez erkidegokoak (%15,6) eta Afrika iparraldekoak (%14,2).

Lehen hiruhilekoan **sinatutako kontratu kopurua**ri dagokionez, EAEn kokatutako lanpostua duten 167.307 kontratu erregistratu dira (kontratatutako pertsonak baino 1,7 aldiz gehiago). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, %14,8 jaitsi da sinatutako kontratu kopurua.

8. Grafikoa. **Sinatutako kontratu kopurua, eboluzioa hiruhileka**



Iturria: Azterketa, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua. Lanbideko Kabinete Teknikoa

Lan - kontratu motaren arabera, joera berdinak jarraitzen du: sinatutako kontratuen %27,2 kontratu mugagabeak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 1,2 puntu gehiago) eta %72,8 aldi baterako kontratuak. Sinatutako kontratu guztietatik %35,3 kontratu partzialak izan dira (aurreko hiruhilekoan baino 0,3 puntu gutxiago).

Lurralde Historikoei dagokienez, balore erlatiboetan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Araban eman da sinatutako kontratuen jaitsierarik handiena (-%21,8), jarraian Bizkaian (-%16,5) eta Gipuzkoan (-%7,5). Bizkaia izan da kontratu kopuru handiena izan duen lurraldea (%49,2; 82.257); jarraian Gipuzkoa (%32,7; 54.664) eta Araba (%18,2; 30.386).

Jarduera Ekonomikoei dagokienez, hurrengoak izan dira kontratu kopuru gehien izan dituzten sektoreak: *Manufaktura industria* (%14,7), *Ostalaritza* (%13,5) *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (%12,6). Gizonezkoen artean, gehien nabarmentzen den sektorea *Manufaktura industria* da (%22,6) eta emakumezkoen artean *Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak* (%19,6).

Okupazioa eta Langabezia, Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkestaren arabera (BJA)

Langabezia tasa %8,7koa izan da eta enplegu tasa %51,4ekoa

Aztertutako hiruhilekoan, EAEko **enplegu tasa** %51,4ekoa izan da (%56,0 gizonezkoen kasuan eta %47,2 emakumezkoen kasuan). Landunen kopurua guztira 960.800ekoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 2.100 pertsona gutxiago. Gizonezkoen kasuan, landunen kopurua 501.800ekoa izan da (aurreko hiruhilekoan baino %0,2 gutxiago) eta 459.000ekoa emakumezkoen kasuan (aurreko hiruhilekoan baino %0,3 gutxiago).

Adinari dagokionez, enplegu tasa handiena 25-44 urte bitarteko taldeari dagokio (%80,1), 391.000 landun. Bestalde, enplegu tasa txikiena 16-24 urte bitarteko taldeari dagokio (%24,6), 47.400 landun. Balore erlatiboetan eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, landun kopuruari dagokionez eboluziorik onena izan duen taldea 16-24 urte bitartekoa izan da (+%3,7).

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoa izan da enplegu tasarik handiena izan duena (%52,9), jarraian Araba (%52,6) eta Bizkaia (%50,2). Landun kopuruari dagokionez, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Araban %1,7koa igoera egon da; hala ere, Bizkaian %0,9ko jaitsiera erregistratu da eta Gipuzkoan -%0,1koa.

Jarduera Ekonomikoari dagokionez, Zerbitzuen sektorea izan da okupatu gehien izan duena (%73,4). Ondoren, Industria sektorea (%21,1), Eraikuntza sektorea (% 5,6) eta Lehen sektorea (%0,9).

Kontratu motari dagokionez, soldatapekoen %77,4k kontratu mugagabeak-finkoak izan dituzte EAEn eta %21,9k aldi baterako kontratuak. **Lanaldi mota**ri dagokionez, soldatapekoen %81,1k lanaldi osoko kontratuak izan dituzte eta %18,6k lanaldi partzialekoak.

Lehen hiruhilekoan, EAEko **langabezia tasa** %8,7koa izan da (%8,3 gizonezkoen artean eta %9,3 emakumezkoen artean). Langabetu kopurua 92.100 pertsonakoa izan da, aurreko hiruhilekoan baino 2.300 pertsona gehiago (gizonezkoen kasuan %4,6 igo da langabetu kopurua eta emakumezkoen kasuan +%0,4).

Adinari dagokionez, langabezia tasarik baxuena 45 urte edo gehiagoko taldeari dagokio (%6,8); jarraian 25-44 urte bitarteko taldea (%9,8) eta 16-24 urte bitarteko taldea (%19,9). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, langabetu kopurua hazi egin da adin talde guztietan: 16-24 urte bitartekoenean, %6,3a; 25-44 urte bitartekoenean %3,4a eta, azkenean, 45 urtetik gorakoak %0,8a.

Lurralde Historikoei dagokienez, Gipuzkoan izan da langabezia tasarik baxuena (%7), jarraian Araban (%8,8) eta Bizkaian (%9,8). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, balore erlatiboetan, Araban %4,7 murriztu da langabetu kopurua; Bizkaian eta Gipuzkoan ostera, %5,1 eta %2,1 igo da, hurrenez hurren.

Ikasketa-mailaren arabera, argitaratutako azken datuen arabera, 2022ko laugarren hiruhilekoari dagozkionak, langabetuen %46,8k bigarren mailako eta erdi-mailako ikasketak ditu, %27,8k oinarrizko ikasketak edo baxuagoak ditu, eta azkenik, %25,4k goi-mailako ikasketak ditu.

Jatorriari dagokionez, langabetuen %73,5 bertakoak dira, atzerritarrak, beraz, %26,5.